


IRABAZIEN BANAKETA



Gure negozioa Bilboko erdigunean egongo da, hilean 200€ balio duen bulego batean. Bulegoa urtebetez ordaintzen hasiko gara, 2.400 euroko prezioan. Diru kopuru hori taldeko kide guztien artean ordainduko dugu, geure diruarekin (5 gara, eta bakoitzak 480€ balio du).

Erreformak egiteko dirua

Ez dugunez etxerik erosi behar, ez dugu etxebizitza ordaindu beharko, baina bai etxebizitza eraberritu. Hor erabiliko dugu AteHomereren inmobiliariarekin egin dugun aliantza, inmobiliariak duen erreformen sailarekin. Erreformaten gastua oso handia bada eta agentziarekin dugun aliantzak gastu guztiak estaltzen ez baditu, erreformatik ordaintzeko falta dena bakarrik ordaindu beharko dugu.

Alokairuetatik irabaziko duguna

Etxearen kokapenaren arabera, eta haren espazioen arabera prezioa altuagoa edo baxuagoa izango da. Gainera, logelak izango dituen ezaugarrien arabera ere, prezioa alda daiteke, adibidez: komuna logelan, terraza ... eta abar izateak prezioa igoko du. Guzti hau kontuan hartuta, logela estandar baten prezioa 450€-koa izango litzateke hilabetero gutxi gora-behera.

Ordainketa epea

Bezeroak logela alokatzean hilabetearen lehenengo egunean ordaindu beharko dute transferentzia baten bidez. Lehenengo hilabete hori igarotakoan, alokairu bakoitzeko dirua ordaindu ahaliko dute hilaren 10era arte, hau da, hamar egun izango dute gehienezko epe gisa. Oso garrantzitsua da bezeroak ordainketekin gainezka ez sentitzea, horregatik eskaintzen diegu erraztasun hau, lasaiago hartu dezaten.

Norentzat?

Jende askok gure logeletako bat alokatzeko aukera izango du, lan egiten duten gehienentzat prezio eskuragarria baita. Horregatik, gure zerbitzuak interesgarriak eta bateragarriak dira laguntza ekonomiko gehiago behar duten pertsonekin.

Gure bezeroek hilabete bakoitzeko alokairua ordain dezaketela ziurtatu behar dute!